

# X A B I E R Z E B E R I O



PAUSE

Aitor Etxebarriarekin batera eta Forbidden  
Colours zigilupean kaleratutako lana

# PAUSE

Intimista, pausatua eta barea, sakona eta era berean lebitatzailea, emozioen ertzak kilimatu eta leuntzen dituen lan biribila da Pause. Atmosferak sortzen dituzten diskoez ari garenean (soinu bandekin gertatu ohi da sarri), amaitu gabe dagoen alboko melodiaren susmoa piztu ohi zaigu usu: aditz laguntzailea besterik ez ote da musika? Kasu bakan batzuetan, aldiz, delako atmosfera hori urrundu egiten da atrezzo soiletik eta gure arretaren erdigunean ipintzen da: lanbroz ehundutako animo egoera horiek inguratu eta gatibatu egiten gaituzte oharkabean, eta jada ez dugu giro horretatik irten nahi. Horixe da Xabier Zeberioaren lan honen kasua; goiz-albako esnatze baten lurruna, penarik gabeko malenkonía, aireportu mortuko denbora esekia. Datorren egunari aurre egin edo joandakoari buruz hausnartzeko tenorea dakarten doinuak. Trikimailurik gabeko zirrara. Aitor Etxebarriaren lemak behelainoz bildutako bibrazioa eman dio ontziari. Iñar Sastrearen pianoak seinlatu eta askatu egin ditu kostaldeko paisajearen korapiloak.

Liam Ó Maonlaíren ahotsak alegietakoa dirudien kantu eternala oparitu digu, edozein Ulisesek porturatzean entzun nahiko lukeen aire hunkigarria. Zeberioaren nyckelharpak eta biolinak hustuketa oteizarra egin diote kasik Alos Quartet-ekin egindako lanari.

Zer pentsa ematen du "nordiko" adjektiboak gure artean azken urteotan egin duen bide arrakastatsuak. Baina ulertzen ote dugu benetan "nordiko" hitzaren esanahia? Gardentasun kalbinista, minimalismo soila, erabilgarria bada ederra dela, apaingarriei uko egin behar zaiela... Irudiz gainezkatutako gure kultura katolikoaren kontrakoa den oro, alegia. Bolumenei begiratu beharrean espazio hutsei erreparatu eta hutsuneak habitagarri eta isiluneak pentsagarri bihurtzea bada nordiko izatea, esan liteke baietz, Xabier Zeberioaren honek fiordoan egin duela bere pausaldiko habia.

Habiarik gabe ez baitago abiatzerik. Eta zenbat eta goxoagoa habia, orduan eta adierazgarriagoa hegaldia.

# Xabier Zeberio Etxetxipia

1982an hasten ditu biolin ikasketak, Suzuki metodoarekin eta Ana Maria Sebastianen eskutik. 1998an, Donostiako Konserbatorioan Goi mailako Biolin titulua eskuratzen du. Ondoren, Bordeleko "Conservatoire National"-en jarraitzen du eskolak jasotzen Vladimir Nemtanuren eskutik. Rafaella Acella maisuarekin sakondu du interpretazioa. Aldi berean, Jazz kontrabaxua, Harmonia modernoa, Moldaketak eta Konposizioa ikasten du Donostiako JAZZLE, musika moderno eta jazz eskolan. 2002an Nyckelharpa Suediar instrumentuarekin maitemindu eta buru belarri hasten da hura lantzen.

1997an Euskadiko Gazte Orkestran eta Oskorri sartzen da. 1999an Alos Quartet taldea sortzen du Pello Ramirez eta Francisco Herreroekin batera.

Musikari moduan 160 grabaketa baino gehiagotan parte hartu du eta artista ugarirekin lan egin du n; Batzuk aipatzearen, Dulce Pontes, Mikel Erentxun, Los Piratas, Kepa Junkera, Izaro, Imanol, Carlos Nuñez, Rafa Rueda, Ken Zazpi, Jabier Muguruza, Oreka Tx, Ana Alcaide, La Buena Vida, Benito Lertxundi, Xabi Aburruzaga, Iñaki Salvador, Esne Beltza, Antony, Phil Woods, Anari, Antton Valverde, Amorante, Mikel Markez, Mikel Laboa, etab.

Hainbat orkestrarekin ere lan egin du, hala nola, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Pablo Sarasate Orkestra, Et Incarnatus eta Irungo Fundazioko orkestrarekin.



Zinema eta telebista munduan, soinu banda ugariren grabaketetan ere parte hartu du Pascal Gaigne, Arantzazu Calleja, Maite Arroitauregi, Aitor Etxebarria, Olivier Arson, Paula Olatz, Bingen Mendizabal eta Anjel Illarramendi konposatzeileekin. Batzuk aipatzearen: "Erase una vez en Euskadi", "No me gusta Conducir", "Chaika", "Katmandu, un espejo en el cielo", "Fragil", "El Radioaficionado", "El Cuerpo en Llamas", "Cinco Lobitos", "Intimidación", "Irati" edo "Akelarre" Soinu banda onenaren Goya sariaren irabazlea.

Arreglista moduan eremu askotako artistekin lan egin du eta dantza ikuskizun, dokumental eta Antzerki obra hainbaterako musika konposatu du: Amaia Elizaran konpainia, La Rous Teatro, Markeliñe, Aukeran Dantza Konpainia etb.

6 diska kaleratu ditu konposizio originalekin; "Alos Quartet" NOCD, Alos Quartet "10 Tanta" NOCD, Alos Quartet "Garden" NOCD eta "ON Proiektua" Pello Ramirezekin elkarlanean, "Lau" Alos Quartet, "20 urte Zuzenean" Alos Quartet.

# PAUSE

## Zuzeneko formatuak

### **1- DUO FORMATUA (Akustikoan):**

Iñar Sastre: Pianoa eta teklatuak

Xabier Zeberio: Konposizioa eta harizko instrumentuak

### **2- DUO FORMATUA:**

Iñar Sastre: Pianoa eta teklatuak

Xabier Zeberio: Konposizioa eta harizko instrumentuak

#### **2.1- DUO FORMATUA BIDEO PROIEKZIOAREKIN:**

Bideo proiektzioa: Itziar Garaluce

### **3- TRIO FORMATUA:**

Iñar Sastre: Pianoa eta teklatuak

Eñaut Zubizarreta "Trigger": Celloa

Xabier Zeberio: Konposizioa eta harizko instrumentuak

### **4- FORMATU HANDIA:**

Iñar Sastre: Pianoa eta teklatuak

Eñaut Zubizarreta "Trigger": Celloa

Aitor Etxebarria: Elektonika eta diseinu sonoroa

Xabier Zeberio: Konposizioa eta harizko instrumentuak

#### **4.1- FORMATU HANDIA BIDEO PROIEKZIOAREKIN:**

Bideo proiektzioa: Itziar Garaluce





Ikusi TEASERa hemen



# Harremanetarako

maria@bidatuz.eus

+34 616 843 350

BIDATUZ KULTUR KUDEAKETA

*Maria Zubimendi de la Hoz*

Armendigain 26- 1.A

20809 Aia (Gipuzkoa)